

**TXOKOAN**

**TRINKETA**

**Biscouby eta P. Karrikart berdinduta daude EPB zirkuituko sailkapeneko lehen postuan**

Jokatu dira EPB (Elite Pelote Basque) zirkuituko lehen zazpi txapelketak eta behin-behineko sailkapen berri eman dute. Jean Claude Biscouby eta Philippe Karrikart daude berdinduta sailkapen nagusiko lehen postuan, 80 punturekin. Lafitte, Ezkurra, Larretxea eta Muskarditz dituzte atzetik, 70ekin. Aurrelarien artean, Laffite eta Ibarrola daude berdinduta 60 punturekin. Atzelarien artean P. Karrikart dago lehen postuan. EBP zirkuituko hurrengo txapelketak: Parisko Masters irailean eta Bordelekoa urrian.

**JAIALDIAK**

**ATZOKO EMAITZAK LEITZA.**

Retegi VI.a-Begino 22, Saralegi-Bengoetxea V.a 18. Alustiza-Barriola 19, Olaizola II.a-Otxandorena 22.

**GALARRETA.**

Zalakain-Barrenetxea II.a 35; Matxin III.a-Reklusa 28. Ezkurra-A. Lekunberri 40; Iñigo-Altuna I.a-Aizpuru 34. Elizalde-Etxeberria III.a 40; Urretabizkaia I.a-Txikuri 28.

**GAURKO PARTIDAK GERNIKA. 17:00.**

Beloki II.a-Albizuri / Arbizu-Begino. Gernika Hiria Torneoko finala: Koka-Peñagarikano / Unanue-Armendariz.

**MALLABIA. 22:30.**

Txafee-Bernal / Del Rey-Urberuaga. Titin III.a-Goñi III.a / Goñi II.a-Lasa III.a.

**NAVARRETE (Errioxa). 22:00.**

Etxaniz II.a-Galarza IV.a / Otaegi-Errendonea III.a.

**GALARRETA. 16:00.**

Uterga-Lander / Martinez-Reklusa. Zeberio II.a-Eizagirre / Elizalde-Altuna I.a-Aizpuru. Bereziartua-Etxeberria III.a / Agirresarobe-Urretabizkaia II.a. Lezea-Ekiza / Iribarren-Badiola.

**MIARRITZE. 22:00.**

Etxalus-J. Arriaga / A.Arriaga-Kevin.

**BIHARKO PARTIDAK ZARAUTZ. 17:00.**

Nagore-Pinedo / Etxaniz-Rai. Zarautz Hiria Torneoko finalerdia: Titin III.a-Elkoro / Olaizola II.a-Beloki. Badiola III.a-Bernal / Leiza-Galarza VI.a.

**CHAÑE (Segovia). 18:00.**

Urretabizkaia anaiak / Martinez-Txikito IX.a.

**ALMALUEZ (Soria). 18:30.**

Arroyo III.a-Nicolas / Mikel-Retegi VII.a. Otaegi-Galarza IV.a / Etxaniz II.a-Almandoz.

**NEILA (Burgos). 19:00.**

Amarika IV.a-Marin II.a / Tripta II.a-Iñurrategi.

**GALARRETA. 16:00.**

Zeberio III.a-Aizpuru II.a / Zalakain-Gaztelu. Bingo Londres buruz burukoak: Altuna II.a / Bitoria. Zeberio II.a-Iriarte / Ezkurra-Urko. Kalonge-Auzmendi / Sarasua-Txikuri.

**MUNDUKO TXAPELKETA.** Espainiako selekzioko 52 jokalarietatik 38 euskal herritarrak dira

# Hamasei herrialdetako selekzioak arituko dira, eta Euskal Herrikerik ez

Iruñeko Mundialeko zuzendaritza batzordea baikor agertu da txapelketaren aurkezpenean

Ion Orzaiz | **IRUÑEA**

Aste baten buruan, Iruñeko Labrit pilotalekua beteko duten pertsonak Munduko Pilota Txapelketaren hasieraren lekuko izango dira. Oraingoan, txapelketak eztabaida handiak sortu ditu Nafarroa aldean, euskal pilotariak Espainiako eta Frantziako selekzioekin soilik eman dezaketelako izena, baina antolatzaileek polemika saihestu nahi izan zuten, eta txapelketak sorrarazten duen ikusmina besterik ez zuten aipatu. «Itxaropentsu gaude. Zertzelada batzuk besterik ez dira falta gure lana guztiz bukatzeko, eta Mundial bikaina antolatu dugula uste dugu», azaldu zuen Pilota Mundialeko zuzendaritza batzordeko lehendakari Joaquin Arbeloa.

Mundialean 16 herrialdetako delegazioek hartuko dute parte, baina Espainiako, Frantziako eta Mexikoko selekzioek soilik jokatu dute dauden 14 modalitateetan. Delegazio hauetaz gain, Peru, Argentina, Kuba, Uruguai, AEBak, Venezuela, Txile, Belgika, Brasil, Maroko, Filipinak, Kanada eta Dominikar Errepublikak daude Txapelketan izena emanda. Boliviako selekzioa ere jokatzekoa zen, baina arazo ekonomikoek bulztatuta, parte ez hartzea erabaki du azken unean.

**6 pilotaleku 250 partida baino gehiago jokatzeko**

Guztira, 253 partida izango dira, 195 lehenengo fasean eta 58 finalerdietan eta finaletan, eta 4 motatako pilotalekuetan jokatuko dira: 54 metrokoak (Huarteko Euskal Jai Berri pilotalekua), 36 metrokoak (Iruñeko Labrit eta Lizarrako Remontival frontoiak), 30 metrokoak (Olazko Kiroldegia) eta Trinketak (Mendillorrikoa eta Iruñeko Tenis klubekoa), guztira 6 pilotaleku txapelketaren 14 modalitateen partidak jokatzeko. Hala ere, entrenamenduetarako, 4 pilotaleku izanen dituzte pilotariak: Iruñean, Larrabide kiroldegia, Tenis kluba eta Oberena kluba; eta Noainen, Jai Alai pilotalekua.

Salmenta-kopuruari buruz, Joaquin Arbeloa presidentea baikor agertu zen. «Sarrera-salmentaren emaitzak pozgarriak dira, Labriteko pilotalekuan eta trinketetan abonamenduen %70 saldu ditugulako, eta

## 14. Munduko Pilota Txapelketa Selekzioak

**TRINKETA**

Paleta gomaz emakumezkoak	
A	B
Espainia	Kuba
Frantzia	Uruguai
Argentina	Venezuela
Mexiko	AEB
Txile	Brasil

Paleta gomaz gizonezkoak	
A	B
Argentina	Espainia
Uruguai	AEB
Txile	Brasil
Mexiko	Kuba
Frantzia	Maroko

Xarea	
A	B
Espainia	Kuba
Frantzia	Mexiko
Argentina	Uruguai

**Paleta larruz**

A	B
Argentina	Espainia
Frantzia	Mexiko
Uruguai	Kuba
	Txile

**Eskuz binaka**

A	B
Mexiko	AEB
Frantzia	Venezuela
Espainia	Argentina
Kuba	Belgika

**Eskuz banaka**

A	B	C
Frantzia	Kuba	Argentina
Mexiko	AEB	Venezuela
Espainia	Uruguai	Belgika

**54m-ko FRONTOIA**

Zesta-punta	
A	B
Frantzia	AEB
Mexiko	Filipinak
Espainia	Brasil
Kuba	Kanada
	Venezuela

**36m-ko FRONTOIA**

Paleta larruz	
A	B
Espainia	Argentina
Kuba	Mexiko
Frantzia	AEB
Uruguai	Venezuela

**Pala motza**

A	B
Kuba	Mexiko
Espainia	Uruguai
Frantzia	Venezuela
Argentina	Brasil

**Eskuz binaka**

A	B
Espainia	Argentina
Kuba	Mexiko
Frantzia	AEB
Venezuela	Bolivia

**Eskuz banaka**

A	B
Espainia	Argentina
Frantzia	Mexiko
Kuba	AEB
Venezuela	

**30m-ko FRONTOIA**

Paleta gomaz		
A	B	C
Argentina	Txile	Brasil
Mexiko	Frantzia	Kanada
Kuba	Espainia	Maroko
Uruguai	AEB	Belgika
	Venezuela	Kuba

**Emakumezkoen frontenisa**

A	B
Mexiko	Brasil
Argentina	AEB
Frantzia	Venezuela
Espainia	Peru
Uruguai	Frantzia
	Dominikar Errep.

**Gizonezkoen frontenisa**

A	B
Mexiko	Txile
Espainia	Uruguai
Kuba	AEB
Argentina	Brasil
	Dominikar Errep.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS  
Mundialeko zuzendaritza batzordea, atzoko prentsurrekoan.

Huarteko Euskal Jai Berri eta Olazko frontoietan, %50».

Azkenik, batzordeko presidentek Espainiako selekzioari buruz hitz egin zuen: «Selekzioa 52 jokalarik osatzen dute, eta haietako %50 nafarrak dira. Beste asko EAekoak dira, 12 valentziar, asturiar bat eta Aragoiko bat daude», zehaztu zuen Arbeloa.

Munduko Txapelketa hurrengo asteazkenean hasiko da, inaugurazio ekitaldiarekin, Iruñeko Labrit pilotalekuan (18:30), eta Espainiako eta Frantziako selekzioek jokatu dute elkarren kontra paleta larruz. Hala ere, partida horretarako ez da sarrerarik egongo, gonbidapena dutenek baino ez baitute sarbidea izango.

**ESANAK**

**JOAQUIN ARBEOA**

(Munduko Txapelketako zuzendaritza batzordeko presidentea)

«Zertzelada batzuk bakarrik falta dira lana amaitzeko, eta Mundial bikaina antolatu dugula uste dugu»

«Sarreraren salmenta ondo doa: Labriten, abonamenduen %70 saldu dugu eta Euskal Jai Berrin, %50»

«Espainiako selekzioko %50 Nafarroako pilotariak osatzen dute, eta beste asko EAekoak dira»